

Ordizian, 2017ko irailaren 28an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M <sup>a</sup> .Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicege jauna.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK:

## BERTARATUTAKO EDO ETORRI EZ DIREN BESTE BATZUK

### EGUNEKO GAI ORDENA

#### EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2017ko uztailaren 20an egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Uztaileko eta abuztuko Alkatetza Dekretuen berri ematea.
- 3.- Kontratuei kontu-hartzaileak aurkeztutako ingerak, abuztu eta irailari dagozkionak.
- 4.-2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrak behin betiko onartzea.
- 5.-Diru-laguntzen Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzea.
- 6.-Kreditu aldaketak onartzea.
- 7.- Beasain-Ordizia Udalen mugaketa-espediterako Batzordea izendatzea.
- 8.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren artean datuak uzteko lankidetzaren hitzarmena.
- 9.- "Txindoki" 15 HIEren Arau Subsidiarioetako xedapen-aldaketaren hasierako onarpena.
- 10.- EH-BILDUren mozioa, Kataluniari buruzkoa.
- 11.- Askatasunaren, anaitasunaren eta bizikidetzaren aldeko Adierazpenarekin bat egitea.
- 12.-Kataluniari buruzko erakunde adierazpenaren proposamena.
- 13.- Eskaerak eta galderak.

#### PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

#### GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

#### GORABEHERAK

### ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 20:00



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilerari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2017ko uztailaren 20ko ohiko bilkurako akta onartzea.

2017ko uztailaren 20an ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

*Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.*



Jarraian, Alkate jaunak bigarren puntuaren berri eman du.

### 2.- Uztaileko eta abuztuko Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



### 3.- Kontratuei kontu-hartzaileak aurkeztutako ingerak, abuztu eta irailari dagozkionak.

## Proposamena

### KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA ( 6/2017): AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

## Ordiziako Udala

(Gipuzkoa)

NOMBRE DE LA PERSONA FISCA;	OBJETO DEL CONTRATO	CONTRATO	PLAZO DE EJECUCION	PRORROGAS	PRECIO DE CONTRATO	GASTADO
			VENCIMIENTO			2016
GISMUNPAL				Decreto adjudicacion de fecha 3 1/10/2007	VARIABLE	30.943,58
	Recaudacion Ejecutiva	3.11.2003	3.11.2007	Sin contrato y sin plazo		
JUAN M. GARMENDIA AMUNDARAIN	Servicio de conserje de la Casa cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Imports 2016:	42.817,20
					2.948,84 eiuos/mensua + IVA	
LANDARRI, S.L.	Servicio Cementerio	10/03/2005	10 años	Decreto prorroga de contrato hasta nueva adjudicacion	Precio maximo 18.000 eiuos. + IVA	21.937,30

			1 0./03/2015	Vto. 1 2.03.201 6		
ALOTZA GUARDERIA	Gestion Serv. Municipal	01/09/2009	Maximo 6 anos.		Ver contrato	388.104,00
Asociacion de Padres	Escuela Infantil		01 /09/20 15		Tarifas + si_fc>v. + contraprestacion ay untamiento de 33.500	
GOXARA, S.L.	Gestion Centro de Dia	10/1 1/2009	adicionales al plazo de 10/11/20^		SegCn tarifas	271.916,44
EULEN SOCIOSANIT A RIOS	Servicio de Ayuda Do miciliaria	24.1 2.201 0	Maximo 5 anos 24/12/2015	Decreto 1 169 de 3 0/11/2 015 prorrogado hasta nueva adjudicacion del contrato	SegCn tarifas	140.409,78
LORRAT Z ELKARTEA	Servicio publico de intervencion socio-educativa en medio abierto con jovenes y menores en situacion de riesgo	27/04/2012	Maximo 4 anos	Decreto de prorroga hasta nueva adjudicacion, maximo un ano	Precio contrato: 60.000 eiuos IVA incluido.	63.806,72
Arantxa Zabaleta Imaz °			27/04/2016		Precio 2016: 65.529 eiuos IVA incluido	
ERRO Koop. ELKARTEA	Gestion del Centro Delikatuz	24/07/2012	Maximo 4 anos		Precio contrato: 90.000 eiuos IVA incluido	102.755,36
Leire Arandia			24/07/2016			
INDOK	Gestion MUNIGEX	Sin contrato	Anual		12.196,80 euros IVA inclido.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/0 4 /201 3	01 /04/20 15	Sin contrato	17.061 eiuos IVA inclido.	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano.	Contratacion provisional 10/1 0 /201 3	Indefinido ( hasta nueva contratacion )	--	18,07 eura / hora + IVA	163.343,53
AINARA ORMAET XEA HARTO	Servicio de Inmigracion	01/0 1 /201 6	31 /12/20 16		21.773,95 euros IVA inclido	21.966,02
					TOTAL	1.283.651,17

#### a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

#### "23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea

1. Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

#### Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzuketak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia '1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

*k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.*

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."


1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.

c) Ordainketaren kontuhartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru



arau honetako 57. artikuluan  
amankomunatu erantsiko zaie.

aurreikusitako fondo erabilpenerako

"70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:

"213. artikulua. Barneko kontrola."

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailatza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailatzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.


Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

3. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoko eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

4.Kontu-hartzailtzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:



2017KERR0006

Ordiziako Udala  
(Gipuzkoa)

Ordizian 2017ko abuztuaren 28an

LANDARRI	1700460	320,87
	GUZTIZKOA	60.850,33

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularitasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

**763. DEKRETUA****HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2017ko abuztuaren 28an egindako 6/2017 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebehar jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

\* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.



FAKTURAK ERREPAROA ABUZTUA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKO A
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/08	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	9	38000
INDOK	1048	1586,92
INDOK	1051	650,38
LAIA, S.COOP.	17/21	1492,83
LAIA, S.COOP.	17/23	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	009U.17	7640,25
GESMUNPAL, S.A.	2017/234	1.682,94
GESMUNPAL, S.A.	2017/07	276,66
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	41	141,57
LANDARRI	1700355	320,87
LANDARRI	1700392	401,07
LANDARRI	1700391	401,07
LANDARRI	1700390	401,07
LANDARRI	1700398	641,74
LANDARRI	1700397	80,08
LANDARRI	1700396	320,87
LANDARRI	1700420	401,07
LANDARRI	1700416	125,01

LANDARRI	1700101	80,08
LANDARRI	1700100	125,01
LANDARRI	1700099	80,08
LANDARRI	1700440	125,01
LANDARRI	1700461	401,07
LANDARRI	1700460	320,87
	<b>GUZTIZKOA</b>	<b>60.850,33</b>

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

### HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA ( 7/2017): AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

NOMBRE DE LA PERSONA FISICA:	OBJETO DEL CONTRATO	CONTRATO	PLAZO DE EJECUCION VENCIMIENTO	PRORROGAS	PRECO DE CONTRATO	GASTADO 2016
				Decreto adjudicacion de fecha 3 1/10/2007	VARIABLE	30.943,58
	Re c audae ion Ejecutiva	3.1 1.2003	3.11 .2007	Sin contrato y sin plazo		
JUAN M. GARMENDIA AMUNDARAIN	Servicio de conserje de la Casa cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84 euros/mensua + IVA	42.817,20
LANDARRI, S.L.	Servicio Cementerio	10/03/2005	10 años	Decreto prorroga de contrato hasta nueva adjudicacion	Precio max imo 18.000 €Ios. + IVA	21.937,30
ALOTZA GUARDERIA	Gestion Serv. Municipal	01/09/2009	Maximo 6 años.	Vto. 1 2.03.2016	Ver contrato	388.104,00
Asociacion de Padres	Escuela Infantil		01 /09/2015		Tarifas + sUbv. + contraprestacion ay untamiento de 33.500	
GOXARA, S.L.	Gestion Centro de Dia	10/11/2009	adicionales al plazo de 10/11/2016		SegOn tarifas	271.916,44
EULEN SOCIOSANITARIOS	Servicio de Ayuda Domiciliaria	24.12.2010	Maximo 5 años 24/12/2015	Decreto 1 169 de 3 0/11/2 015 prorrogado hasta nueva adjudicacion del contrato	SegOn tarifas	140.409,78
LORRATZ ELKARTEA	Servicio publico de intervencion socio-educativa en medio abierto con jovenes y menores en situacion de riesgo	27/04/2012	Maximo 4 años 27/04/2016	Decreto de prorroga hasta nueva adjudicacion, maximo un año	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	63.806,72
Arantxa Zabaleta Imaz °						
ERRO Koop. ELKARTEA Leire Arandia	Gestion del Centro Delikatuz	24/07/2012	Maximo 4 años 24/07/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido	102.755,36
INDOK	Gestion MUNIGEX	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01 /04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido.	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano.	Contratacion provisional 10/10/2013	Indefinido ( hasta nueva contratacion )	--	18,07 euro/hora + IVA	163.343,53
AINARA ORMAET XEA HARTO	Servicio de Inmigracion	01/01/2016	31 /12/2016		21.773,95 euros IVA incluido	21.966,02

			1		TOTAL	1.283.651,17
--	--	--	---	--	-------	--------------

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea."

1. Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzuketak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia '1. Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:

*k) Hala egokitz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.*

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretizkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.

c) Ordainketaren kontuhartze materiala. Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.

#### "70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:

#### "213. artikulua. Barneko kontrola."

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

#### "218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion

alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoren eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

2. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako


arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

FAKTURAK ERREPAROA

Iraila

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/08	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	9	38000
INDOK	1048	1586,92
INDOK	1051	650,38
LAIA, S.COOP.	17/21	1492,83
LAIA, S.COOP.	17/23	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	009U.17	7640,25
GESMUNPAL, S.A.	2017/234	1.682,94
GESMUNPAL, S.A.	2017/07	276,66
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	41	141,57
LANDARRI	1700355	320,87
LANDARRI	1700392	401,07
LANDARRI	1700391	401,07
LANDARRI	1700390	401,07
LANDARRI	1700398	641,74
LANDARRI	1700397	80,08



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

2017KERR0007

LANDARRI	1700396	320,87
LANDARRI	1700420	401,07
LANDARRI	1700416	125,01
LANDARRI	1700101	80,08
LANDARRI	1700100	125,01
LANDARRI	1700099	80,08
LANDARRI	1700440	125,01
LANDARRI	1700461	401,07
LANDARRI	1700460	320,87
	GUZTIZKOA	60.850,33

### ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordaintzen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

### 826. DEKRETUA

#### HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2017ko I irailaren 28an egindako 7/2017 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek inpleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.


Horregatik guztiagatik:

#### HONAKO HAU ERABAKI DUT:

\* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/09	3.660,98

<https://munigex.net/r/0/76/AAA3X228>



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

ALOTZA HAURTZAINDEGIA	10	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	195	5.460,75
LORRATZ ELKARTEA	235	5.460,75
INDOK	1054	923,53
LAIA, S.COOP.	17/26	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	010U.17	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	79	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	80	1.814,49
EULEN, S.A.	3126126	6.986,81
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3456639	8.432,18
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3467684	6.421,04
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3471739	4.834,02
GOXARA, S.L.	EZO07/17	22.904,33
GOXARA, S.L.	EZO08/17	24.614,53
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	51	141,57
GUZTIZKOA		140.602,55

### Eztabaida

#### Kontu-hartzaileak

Azaldu du ematen diren zerbitzuen ordainketetan egiten direla ingerak baina kontratuak erregularizatuta ez daudenean. Horrekin batera 763 eta 826 Alkatetza Dekretuen berri eman du, ordainketa justifikatu eta agindu da horien bidez.


Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



#### 4.- 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrak behin betiko onartzea.

### Proposamena

2017ko ekainaren 29an egindako bileran Kontuen Batzorde Bereziak 2016ko Aurrekontu Orokorren aldeko txostena egin zuen.



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

Aldeko txostena jendaurreko erakusketan egon da 2017ko uztailaren 6ko 129 zenbakidun GAOn, eta ez da erreklamaziorik, erreparorik edo erreparorik aurkeztu.

2017ko irailaren 28an, Kontuen Batzorde Bereziak behin betiko egin du Kontu Orokorren txostena, erakusketa publikorako epea igaro eta erreklamaziorik, erreparorik edo oharrik aurkeztu ez denean.

Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo aurkezten da Osoko Bilkuran onartzeko:

### AKORDIO PROPOSAMENA

2016ko Aurrekontuen Kontu Orokorra onartzea

#### Eztabaida

2017ko uztailaren 29ko Kontuen Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman zion Kontu Orokorrari eta erakusketa publikoan ipini ondoren ez da alegaziorik eta erreklamaziorik aurkeztu; beraz, Kontuen Batzorde Bereziak Kontu orokorren Txostenari aldeko irizpena eman dio eta osoko bilkurara eraman du, onartzeko eskumena duen organora.

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

*Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.*



#### 5.-Diru-laguntzen Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzea.


#### Propuesta

#### **Udalaren, Erakunde Autonomoen eta menpeko erakundearen diru-laguntzen Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzea.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8. artikulua "Oinarri Orokorrak" honako hau dio: "administrazio publikoetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez

<https://munigex.net/r/0/76/AAA3X228>





## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

egongo diren kostuak eta finantziario iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.”

Udal honek Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren proposamen bat egin du zehaztutako legeak ezarritako printzipioetara egokitzeko.

Plan Estrategikoa hasierako izaeraz onartzea osoko bilkurari dagokio eta erakusketa publikoan egongo da GAO n 30 eguneko epean eta Udalaren webgunean eta iragarki-oholean.

2017ko irailaren 20ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

### AKORDIO PROPOSAMENA

- 1.- Hasierako izaeraz onartzea Ordiziako Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta menpeko sozietateen Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, eransten den testuaren arabera.
- 2.- Erakusketa publikoan ipintzea 30 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.
- 3.- Akordio hau behin betikotzat hartzea inongo alegaziorik aurkezten ez bada.

### Eztabaida

2017ko irailaren 20ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman zion diru-laguntzen Plan Estrategikoari.

Plan honek udal erakunde eta elkarteei ematen zaizkien diru-laguntza izendunak arautzen ditu.

Alkate jaunak adierazi du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak onartutako testuari dagokionez aldaketa txiki bat proposatzen dela eta 1. Eranskinari g) atala gehituko litzaiokeela ondorengo testuarekin:

***g) Programaren deskribapena: Autonomía pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko ekimen hezigarri sozialak kudeatzen dituzten erakundeentzako laguntzak (Zuhaizti jubilatuta eta pentsiodunen Elkarteak), eta horretarako beharrezkoak diren ekipamendu eta azpiegituren mantenua.***


*Onuradunak:* Zuhaizti jubilatuta eta pentsiodunen Elkarteak

*Helburua:*

- Ordizian boluntarioritza sustatzea autonomia pertsonalaren sustapenean, mendekotasunaren prebentzioan eta zahartze aktibo eta osasuntsuaren sustapenean.
- “Zuhaizti” Ordiziako jubilatuta eta pentsiodunen Elkarteak autonomia pertsonalaren sustapenean, mendekotasunaren prebentzioan eta zahartze aktibo eta osasuntsuan burutzen duen jarduera hezigarri soziala mantentzen laguntzea.
- “Zuhaizti” Ordiziako jubilatuta eta pentsiodunen elkarte eta zentro sozialaren informazio, sensibilizazio, prestaketa eta zabalpen ekimenak sustatu eta laguntzea.
- Arlo honetako komunitate-orientazio programak sustatzea “Zuhaizti” Ordiziako jubilatuta eta pentsiodunen Elkarte eta Zentro Sozialaren bitartez.
- Ekimen hezigarri sozialen programazioa burutzeko ekipamendu eta azpiegiturretan (“Zuhaizti” Zentro Soziala” mantentzeko, berritze-lanetarako, errehabilitaziorako laguntza ematea.

*Diru-laguntza modalitatea:* Zuzeneko kontzesioa

<https://munigex.net/r/0/76/AAA3X228>



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

*Gutxi gorabeherako gastua:*

Ekimen hezigarri sozialetarako: 11.800 €

Mantenurako: 18.100 €

Inbertsioetarako: 9.000 €

*Finantzaketa:*

*(4078) Ekimen hezigarri sozialetarako diru-laguntzak*

*1 481.03.337.10.1100 2017*

*Sortu beharreko beste aurrekontu-partida batzuk*

*Munigex kod.:*

Kontu-hartzaile jn.:

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa zertan datzan azaldu du eta Udalak Erakunde Autonomoei eta bestelako menpeko erakundeei egiten dien ekarpenekiko zein desberdintasun dagoen.

Plana hiru urtekoa da, 2017, 2018 eta 2019 urterako.

Maiza and.:

Aurreko legealdian Udalaren diru-laguntzetarako dokumentu bateratu bat prestatzen eta onartzen saiatu zirela adierazi du. Eskaerak aurkezteko diru-laguntza deialdiak eta diru-laguntzak arautzen dituzten ordenantzak bateratzea komeni zela ere aipatu zen aurreko legealdian, hori adierazi du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

*Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.*




6.-Kreditu aldaketak onartzea.

Propuesta

<https://munigex.net/r/0/76/AAA3X228>

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus



2017ko ekitaldian sortu diren behar berriei aurre egiteko, beharrezkotzat ematen dugu kreditu aldaketa. 2017ko irailaren 20ko Plenoren Gaietan Batzordeko aldeko irizpenarekin, honako akordio hartzea proposatu da.

AKORDIO PROPOSAMENA


Atxikiten den kreditu aldaketa, transferentzia motakoa onartzea Kontuuhartzailearen oniritziarekin.

**KREDITU TRANSFERENTZIEI PROPOSAMENA**  
**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 212.01.132.00.0900 2017	Mant.lan. Tresn. Udaltz.	5.057,82	3.000,00	2.057,82
1 480.01.152.30.1000 2017	ALOKAIRU SOZIALERAKO lagun.	43.000,00	43.000,00	0,00
1 212.01.133.00.0900 2017	Mak.mant..Tresn. Trafiko kontrola	13.418,56	2.000,00	11.418,56
1 421.01.162.10.0800 2017	Ekarp. SASIETA MANKOMUNITATEARI	945.353,00	111.658,40	833.694,60
1 481.01.338.10.1400 2017	Diru-Lagunt. Erakundeei.	26.200,00	6.787,24	19.412,76
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.033.029,38</b>	<b>166.445,64</b>	<b>866.583,74</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 221.05.135.00.0900 2017	Arropak. Babes zibila	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1 601.01.152.10.0700 2017	CUOTAS DE URBANIZACION SAN JUAN	22.830,00	76.990,86	99.820,86
1 480.01.152.20.0700 2017	Zahar-berritzeko diru-lagun.. Hirigintza	17.000,00	33.000,00	50.000,00
1 226.99.231.20.1000 2017	Hainbat gastu. Eguneko zentroa	2.000,00	3.000,00	5.000,00
1 471.01.430.00.1700 2017	Enpresei Transf.	80.636,25	17.691,66	98.327,91
1 211.01.432.00.0800 2017	Mant.lan.eraik.Turism. sust.	185,66	814,34	1.000,00



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

1 212.01.432.00.1700 2017	Mak.mant.Tresn. D'ELIKATUZ	1.948,72	4.051,26	5.999,98
1 215.01.432.00.1700 2017	Inf.proz.ekipam. . D'ELIKATUZ	0,00	1.000,00	1.000,00
1 226.03.432.00.1700 2017	Turismo sust.	1.548,12	1.451,88	3.000,00
1 626.01.931.00.0200 2017	Informatitako tresnak	0,00	1.000,00	1.000,00
1 226.97.231.00.1000 2017	Ematen ez diren zerbitzu multzoen garap	0,00	23.000,00	23.000,00
1 226.97.338.10.1400 2017	AUZOETAKO JAIK	9.202,27	3.445,64	12.647,91
	<b>GUZTIRA</b>	<b>136.351,02</b>	<b>166.445,64</b>	<b>302.796,66</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

### Eztabaida

Kontu-hartzaileak jakinarazi du bere garaian adostu zela kreditua ez zela erabiliko.  
Orain proposatzen den kreditu aldaketa ordaindu gabe dauden fakturak ordaintzeko proposatzen da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0


Abstentzioa: 0

*Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.*



7.- Beasain-Ordizia Udalen mugaketa-espediterako Batzordea izendatzea.

### Proposamena



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

2017ko apirilaren 7an, Udal honetako erregistroan sarrera eman zitzaion Beasaingo Udalaren osoko bilkurako akordioaren ziurtagiriari, zortzigarren mugarriaren inguruan Ordizia eta Beasain arteko udal-mugartea mugatzeari buruzkoa hain zuzen ere.

Bertan, Beasain eta Ordiziako udal-mugarteen arteko mugarriak onartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki da, 1942. urtean burututako mugaketak aintzat hartuz; eta horrekin batera xede horretarako eratzen den batzordea izendatzea erabaki da.

Gipuzkoako Udal Mugaketak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 18. artikulua arabera, Udalak batzorde bat izendatu behar du, alkateak, 2 zinegotzik, idazkariak eta teknikari batek osatutakoa.

Izendapena egin ondoren, Foru Aldundiari, Beasaingo Udalari eta ukitutako lursailen jabeei erabakiaren berri emango zaie.

Foru Aldundiak, erabakiak jaso eta 2 hilabeteko epean, mugaketa-lanak hasteko data zehaztuko du eta mugaketa-egintzara bere ordezkari gisa joango diren teknikaria edo teknikariak izendatuko ditu.

2017ko irailaren 20ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

### AKORDIO PROPOSAMENA

1.-Batzordea izendatzea zortzigarren mugarriaren inguruan Beasain eta Ordiziako udal-mugarteen mugaketa espedienterako. Batzordea hurrengo pertsona hauek osatuko dute:

- Alkatea, José Miguel Santamaría Ezeiza jauna
- Bi zinegotzi: Arantxa Fernández Alvaredo eta Jose Ignacio Iturrioz Gotor jaun-andreak.
- Udaleko idazkariak: Ana Urkizu Kerejeta
- Teknikaria: Jon Eskisabel del Bosque


2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari, Beasaingo Udalari eta mugakide diren lursailen jabeei ematea akordio honen berri.

### Eztabaida

#### Alkate jn.

Espedientearen helburua Beasain eta Ordiziaren arteko mugak Zortzigarren mugarrian (Mariatats-Upabi) mugarritzea (Mariatats-Upabi). Aspadiako gai eztabaidagarria dela adierazi du.

#### Maiza and.:



## Ordiziako Udala

2017IOSB0007

Esan du aurreko garaian mugak harriekin mugarritzen zirela. Badaki gaur egun aurrerapen teknologikoekin muga horiek zehaztu daitezkeela baina ez daki nola egiten den hori lursailean bertan.

### Idazkari andrea

Bi Udaletarako izendatu diren Batzordeez gain, Foru Aldundiak 2 ordezkari izendatzen dituela azaldu du.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

*Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.*



### 8.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren artean datuak uzteko lankidetzaren hitzarmena.


#### Proposamena

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak, bere eginkizunak betetzeko, beharrezkoa du entitateei, pertsoneri eta, oro har, gizarteari Foru Aldundiaren politiken, programen, zerbitzuen eta ekimenen berri ematea.

Komunikazio hori lurraldean bideratze aldera, aipatu departamentuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basea sortu du. Datu-baseak Foru Aldundiaren laguntzaile diren Gipuzkoako enpresen, elkarten eta entitateen kontaktu-informazioa kudeatzea ahalbidetuko du.

